DENTSITATEA ETA FLOTAGARRITASUNA

1.-Zer da dentsitatea? Aukeratu erantzun zuzena.

Gorputz batek duen materia kantitatea da.

Objektu baten masaren eta bolumenaren arteko erlazioa da.

Objektu batek pisatzen dituen kilogramoak dira.

2.-Aukeratu hitz zuzena kasu bakoitzean:

Gorputz batzuk _____ egiten dira uretan; adibidez, harriak. Beste batzuek, aldiz, flotatu egiten dute; esate baterako, zurak. Gorputz baten dentsitatea urarena baino _____bada, flotatu egingo du; _____ bada, berriz, hondoratu egingo da.

3.-Irakurri arretaz eta esan hurrengo elementuak flotatuko duten edo ez:

Uraren dentsitatea 1g/cm3 da. Hortaz, elementu batek 1g/cm3 baino dentsitate gutxiago badu flotatuko du; baina, elementu batek 1g/3cm3 baino dentsitate handiago badu hondoratuko da.

Hau jakinda, bete hurrengo taula:

Elementuak	Dentsitatea (g/cm3)	Flotatzen du?
Kortxoa	0,24	
Izotza	0,92	
Gasolina	0,7	
Olioa	0,98	
Ozpina	1,01	
Burdina	7,88	

LIVEWORKSHEETS